

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA



LURRARI EMAN ETA HAR



SARIA:
Lesakako
BEKO mintegian
60€ko
erosketa

2017ko APIRILA

152. ALEA

IZENAK IZAN



Kistiñe B. Lertxundi aspalditik Lesakan bizi den emakume polifazetikoa dugu. Argazkilari, kazetari, irakasle eta bertzelako lanetan aritu da, eta gaur egun, nekazari eta sendagile lanetan ere ibiltzen da. Gainera, aitortu digu-narengatik, Etxetik Plazara egitasmoaren jarraitzailea ere bada. Hori guztia dela eta, hurrengo lerrootan berari egin-dako elkarrizketa interesgarria aurkituko duzu, nekazaritza ekologikoari eta bertze hainbat konturi buruz mintzatu zaigu. Halere, elkarrizketa ongi ulertu nahi baduzu, lehen-dabizi galdera bakoitza bere lekuan paratu beharko duzu:

- a - Zein eragin du gure osasunarengan produktu eta elikagai ekologikoak kontsumitzeak?
- b - Orain dela ez hainbertze, gure arbasoek egiten zuten nekazaritza mota eta gaur egun neka-zaritza ekologikoa deitzen diogunaren artean, ezberdintasunik badago?
- c - Zein baldintza bete behar dira?
- d - Produktu ekologikoak kontsumitzea moda bat da edo bertan geratzeko etorri da?
- e - Nola definituko zenuke nekazaritza ekologikoa?
- f - Zer eragin du ilargiak baratzearengan? Kasu egin behar zaio?
- g - Gure eskualdean badago era ekologikoan ekoizten duen nekazaririk?

1.

Nire iritziz, harmonia bat da. Biziarekin errespetuz eta harremanetan jarritz, hau da, komuni-katuz ekoiztea.

2.

Lehen baldintza aritzea da, naturak ematen digunarekin aritzea. Nire ustez, hori egiten badugu, modu ekologikoan ekoizten arituko gara.

3.

Oinarri-oinarrian gauza bera da, hau da, naturak ematen duenarekin ekoiztea. Baina lehen, gure arbasoek-eta erabiltzen zuten hizkuntza eliza edo erlijioarekin lotua zegoen. Eta nahiz eta atzean zegoen ezagutza herriko jendearena berarena izan, hitz egiteko garaian erreguak egiten ziren.

Gaur egun, berriz, dinamizazioa edo eurtmia erabiltzen dugu, Egu edo Urtzirekin keinuen bidez erlazionatzeko. Egu mundu zabala da eta existitzen den guztia hartzen du bere gain, baita gure baitan dauden zelulak ere. Egungo ikerleek kontzeptu horrekin egiten dute lan.



IZENAK IZAN



4.

Eragin handia du. Nik uste dut, produktu ekologikoak kontsumitzea, bai ekoizten dutenei, bai naturari errespetua izatea dela. Nekazariak esfortzu eta lan handia egiten dute uzta ekologikoak lortzeko. Beste alde batetik, guk geronek egiten ahal duguna ere oso garrantzitsua da, hau da, jateko prestatu. Janaria prestatzen dugunean, urtaroak jarraituz kontsumitzen dugu eta hori, naturarekin harremanetan jartzeko modu bat da.

5.

Bai, badaude. Nik ezagutzen ditut ttikiak eta handi batzuk ere bai. Handiak, adibidez, Jauregia (behi esnekiak) eta Doratimuno (oilaskoak eta arrautzak). Ttiki asko ere badaude, adibidez, Etxalarko azoka osatzen dutenak. Batek biodinamikoan egiten du lan eta bertze batek pozoirik gabe egiten du, ekologikoan nola egin ikasten ari da. Bertze batek, aldiz, gasna eta esnea ekoizten ditu, esfortzu handia egiten ari da transgenikorik gabe ekoizteko.

Hauek ere ezin ahortzi: Arantzan Mikel Leitzak ekologikoan ekoizten du, Etxalarko okinek ogi ekologikoa egiten dute eta Beran Abaraska izeneko ezti ekologikoa egiten dute. Hainbat azoka eta talde ere baditugu: Iturengo azoka, Baztango ekoizle ekologikoen taldea, Baztango azoka, Sarako azoka ekologikoa, Bidazi elkarte... eta laster Beran, azoka ekologikoarekin hasiko dira.

6.

Bertan geratzeko dudarik gabe, zabaltzeko eta betiko. Oraindik ez ditugu ongi ezagutzen uzta ekologikoetan lortu dituzten aurrerapenak.

Italiatik ekarritako nekazaritza homeodinamikoari buruzko ikastaro bat egin dut berriki, eta emaitzak izugarriak dira. Modu konbentzionalan ekoiztita baino emaitza hobeak lortu dira, pozoirik gabe eta modu erraz batean. Eta produktu oso merkeak dira gainera. Hori dela eta, jendeari adi egoteko eta ikasteko erranen nioke, asko baitago ikasteko eta gainera, lortzen ahal ditugun sariak handiak dira. Merezi du ikastea eta jakin-min handiarekin ibiltzea.

7.

Bakoitzak ikusi behar du zer bide aukeratzen duen. Neuk adibidez, orain dela 22 urte egutegi biodinamiko bat erakutsi zidatenean pentsatu nuen hori zela bilatzen ari nintzena eta geroztik ez dut bertze gauzarik egin. Gogoratzen dut behin egutegia jarraituz artoa ereiten ari nintzela eta egutegiak berak aipatzen zuen bezala, ilargiaren kokapena aldatu zenean, haizea ere aldatu zela. Hori ikusita, ilargiak duen eragina lantzen hasi nintzen. Baina ez ilargia bakarrik, eguzkiak eta planeta guziek dute eragina. Adibidez, Merkuriok gauzak mugiarazten ditu eta Artizarrak garapena dakar. Hori Eguren hizkuntza da.



SASKI-NAHASKI

SALDA BORDELESA

Produktu kimikorik erabili gabe ere, badago gai (*natural*) **naturalez** egindako hamaika modu eta errezeta, landareen (*eritasun*) **eritasunei** aurre egin eta gure (*ingurugiro*) **ingurugiroan** kalte egingen ez dutela bermatzen digutenak. Horietako bat da ataltxo honetara ekarri dizueguna, salda bordelesa, hain zuzen ere. Baina lehendabiziko parentesi artean aurkituko dituzun hitzak deklinatu beharko dituzu, guk hemen goitian letra lodiz dauden hitzekin egin dugun bezala.

Hitzak berak dioen bezala, salda hau Bordelen asmatu zen, 1880. urtean. Dirudienez, gaur egun oraindik hain famatuak diren (*mahasti*)(1)..... gaitz batek jota zeuden; gorrinaz edo mildiuz kutsaturik. Hori dela eta, salda bordelesa asmatu zuten.



FORMULA

Osagaiak:

- 10 litro ur
- 200g kobre sulfato
- 300g gisu hil

Bi ontzi (*ezberdin*)(2)..... disolbatuko ditugu kobrea eta gisua: alde batetik 6 litro uretan gisua nahasiko dugu, eta bertze aldetik, ur hondarrean kobrea. Bi nahasketak prest ditugunean, poliki-poliki kobreakin (*nahasketa*)(3)..... gisuarena gehituko diogu eta dena ongi-ongi nahasiko dugu. Kontuan hartu behar da erabiltzen diren tresnak plastiko edo (*zur*)(4)..... izan beharko direla, eta ez (*metal*)(5).....



ERABILERA

Salda honen eragina prebentziozkoa da. (*Kobre*)(6)..... esker, gorrinaren onddoen ugalketari traba egiten zaio, horregatik, gaitza sartzera doala nabaritzen denean tratatu behar da landarea.

Behin nahasketa egin dugula, ontzi egoki batean sartu eta (*landare*)(7)..... hostoak lainoztatu edo fumigatuko ditugu. Landare hauetan maiz erabiltzen da: sagarrondoetan, udareondoetan, aranondoetan, gereziondoetan, tomateetan, piperretan, berenjenetan...

KASU EMANI!!

Nahiz eta salda bordelesa nekazaritza ekologikoan aunitz erabiltzen den, horrek ez du erran nahi berekin kontuz ibili behar ez garenik. Izan ere, kobrea metal astuna izanik, gaizki erabiltzen bada, (*baratz*)(8)..... lurra kutsatzen ahal da eta lurlean bizi diren eta onura ekartzen duten onddoak hiltzen ahal ditu. Beraz, kasu eman.

BITXILOREAK

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA



Nekazaritza ekologikoa anitzetan aditzen dugu, baina zer da? Moda1..... da? Ez da, ez, moda, pentsamendu joera gisa ulertu behar da. Gaur egun kontsumitzaileok nekazaritza industrializatuarekiko mesfidantza dugu eta horregatik arreta handiagoa azaltzen dugu produktu hauekiko. Gainera, norberaren osasuna zaintzeaz gain, ingurunea babestearen aldeko apostua egin nahi dugu. Horren garrantzia azpimarratze aldera, ondorengo testuan nekazaritza ekologikoari buruzko zertzeladak prestatu ditugu, baina testuari hitz batzuk kendu dizkiogu eta beheko aldean paratu ditugu zuk zuzenak aukera ditzazun.

Nekazaritza industrializatuak abonua kimiko eta produktu fitosanitarioekin egiten duen erabilerak gure ekosisteman hainbat ondorio txar2....., gainbehera eta desoreka3..... Bertze ondorio batzuk ere badira: kostu energetiko altua, luraren emankortasunaren galera, barietateen galera, merkatal prezioen ezegonkortasuna, kutsadura, nekazal produktuen kalitatearen jaitsiera... Testuinguru honen4..... nekazaritza ekologikoaren aldeko ahotsak gero eta ozenago entzuten dira. Baina zer da nekazaritza ekologikoa edo biologikoa? Artifizialki sortutako produktu kimikorik erabiltzen ez duen nekazaritza alternatiboa da; ingurunearekin harmonizatuz, luraren emankortasuna mantenduz eta inguruko animalia zein landareak errespetatuz kutsadurarik txikiena eragiten5....., hain zuzen ere. Nekazaritza ekologikoa konpromezu pertsonala da, merkatu etekinak alde batera utzita.

Horretarako, ongarri naturalen erabilpena eta kontrola hagitz garrantzitsua da. Naturak ematen duena bueltan itzuli behar zaio, ziklo modukoa sortuz. Nekazaritza ekologikoan kultiboen errotazioa ere beharrezkoa da, asoziazio bereziak egin behar dira onurak lortzeko: errendimenduaren igoera handitu6....., parasitoen eta belar txarren kaltea ere gutxitu behar da.

Anitz idatz7..... nekazaritza ekologikoaren inguruan, baina guk, laburtzeko, printzipio hauek aipatuko ditugu:

- Kalitate altuko produktuen sorkuntzan oinarritzen da.
- Ekosistemeekin bat egiten du lan, eta horretarako, mikroorganismo, landare eta animalien arteko erlazioa indartzen du.
- Lurzoruaren emankortasuna mantendu edo areagotzen du.
- Nekazal tekniken aplikaziotik etor daitekeen kutsadura8..... saiatzeko.
- Dibertsitate genetikoa mantentzen du, inguruko landare eta animaliak kontuan hartuz.
- Inpaktu sozial eta ekologikoa gure nekazal sistematik haratago kontsideratzen ditu.

- | | | | |
|---|---|---|---|
| 1) a.- ahal
b.- omen
c.- al | 3) a.- eragiten
b.- eraginez
c.- eragiteko | 5) a.- duela
b.- duenak
c.- duena | 7) a.- dezake
b.- daiteke
c.- daitezke |
| 2) a.- dakarte
b.- dakartza
c.- dakartzki | 4) a.- antzinean
b.- aitzinean
c.- aintzinean | 6) a.- ezik
b.- izan ezik ere
c.- ez ezik | 8) a.- saihestera
b.- saihesten
c.- saihestea |



Elkarrizketan Kistiñeri galdetu diogu ea ilargiak ba ote duen eraginik baratzeko kontuetan, eta berak ez du inolako zalantzarik izan; bai, badu. Horregatik, ariketa honetan ilargia irakurtzen lagunduko diguten hainbat kontu aipatuko ditugu; alde batetik ilargiak dituen mugimendu edo faseak, eta bertzetik, fase bakoitzean egin beharreko lanen zerrenda ttiki bat.



Gorapena: egunetik egunera ilargiaren orbita gero eta gorago dago.

Beherapena: egunetik egunera ilargiaren orbita gero eta beherago dago.

Ilberria: ilargia ikusten ez den unetik hasi eta egunetik egunera ilargia handiagoa ikusten dugun tartea. Ilargi berritik zaharrerako tartea.

Ilzaharra: ilargi betea ikusten dugun unetik hasi eta egunetik egunera ilargia txikiagoa ikusten dugun tartea. Ilargi zaharretik berrirako tartea.

GORAPENEAN egitekoak

- Lorea, fruitua edo hazia baliatuko diogun barazkia erein eta aldatu (tomatea, piperra, ilarra, artoa...)
- Freskoan jateko barazkiak, loreak eta fruituak bildu
- Haziak bildu
- Usain-belar eta sendabelarrak bildu

BEHERAPENEAN egitekoak

- Hostoa, sustraia edo tuberkulua baliatuko diogun barazkia erein eta aldatu
- Lurra landu
- Simaurtu
- Kimatu
- Erreserbak bildu (patata, baratzuria, tipula...)
- Ongarriak maneatu

Jakoba Errekondo "Bizi baratzea" (Argia)

Ongi ulertu al duzu? Hobeki konprenitzeko, saia zaitez beheitiko sinonimoak lotzen:

ERNE. SARIRAKO!

1. Baratzea
2. Gorapena
3. Beherapena
4. Ilzaharra
5. Bildu
6. Sustraia
7. Landu
8. Simaurtu
9. Kimatu
10. Maneatu

- a. Jorratu
- b. Batu
- c. Ilargi betea
- d. Goroztu, ongarritu
- e. Landu, laboratu
- f. Inausi, kapetatu, muskildu
- g. Ilbehera
- h. Erroa, zaina.
- i. Ortua
- j. Ilgora



ERANTZUNAK

IZENAK IZAN (2.-3. or.):

1- e; 2- c; 3- b; 4- a; 5- g; 6- d; 7- f

SASKI-NAHASKI (4. or.):

1-mahastiak; 2-ezberdinetan; 3-nahasketari; 4-zurezkoak;
5-metalezkoak; 6- Kobreari; 7- landareen/landarearen; 8-baratzeko

BITXILOREAK (5. or.):

1-c; 2-b; 3-b; 4-b; 5-c; 6-c; 7-b; 8-b

151. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

a- ausarki; b- gutziarik; c- txitxirioak; d- produkzioak; e- kare; f- oparoak;
g- akabaila; h- ganbarako; i- karobiak; j- gaztanbera

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: Lesakako
BEKO mintegian
60 €ko erosketa

151. aleko irabazlea:
Leire Bazterrika Loiarde
Zubietakoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak apirilaren 26a baino lehen bidal itzazu.

SARIRAKO ARIKETA

ILARGIMINEZ (6. or.):




- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



JOLAS NAHAS

HITZ GURUTZATUAK



ERANTZUNAK:
1. Ekosistema; 2. Lurzorua; 3. Izurritea; 4. Hazkuntza;
5. Kutsadura; 6. Ingurunea; 7. Gorotza; 8. Emanakorra.

Goitik - beheiti

1. Komunitate natural bateko organismoek eta beren inguru-neak eratzen duten sistema.
2. Lurraren gainazala osatzen duen geruza eta landareen euskarri dena.
3. Lurralde eta denbora berean biztanle edo landareen zati handi bati erasotzen dion eritasun kutsakorra.
4. Gizakiarentzat baliozko produktuak lortzeagatik, animalia edo landareak haztea helburu duen jarduera eta teknika-multzoa.

Ezker - eskuin

5. Garbia ez den edo garbitzat hartzen ez den zerbaitek sortzen duena.
6. Organismoen garapen eta bizitzan eragina duen kanpo-baldintza multzoa.
7. Abereek kanporatzen duten hondakin gotorra. Simaurra edo satsa.
8. Dagokionetik anitz ematen duena.

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Bortziriak eta Malerrekako
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK
eta Baztango Udala**

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka
Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, beheka, 31740 Doneztebe.

bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

